

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTATU NAGUSIA

Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko
Zuzendaritza Nagusia

Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen dituen programen kontura dirulaguntzak emateko 2022ko deialdia.

Diputatuen Kontseiluak, 2022ko martxoaren 8ko bileran, ondorengo erabakia hartu du:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren helburu estrategikoetako bat da Gipuzkoan herritarren arteko bizikidetzaren finkatzea. Helburu hori lortzeko planteatzen duen proiektu estrategikoa da kultura politikoko programa bat garatzea eta herritarren jarrera, balio eta portaera demokratikoetan sakontzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren beste helburu estrategikoetako bat da kultura demokratikoa finkatzea eta indartzea, aniztasunean eta gizarte bidezkoago batean oinarritutako bizikidetzaren hobea lortzeko, betiere Giza Eskubideen Nazioarteko Aldarrikapenarekin koherentzia gordez.

Testuinguru horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritza Nagusiaren bitartez betetzen ditu legeak agindutako sustapen ekintza horiek, elkarteei, udalei eta eskualde mailako tokiko garapen agentzietan dirulaguntzak emanez helburu horiekin bat datozen proiektuak garatzeko.

Laguntzek hainbat helburu dituzte. Lehenik eta behin, irabazi asmorik gabeko entitate pribatuei zuzendutako dirulaguntzen lerroa ezartzen da, giza eskubideak eta aniztasuneko bizikidetzaren defendatzeko eta hedatzeko proiektuak egiteko. Laguntza horien helburua da Gipuzkoako kultura demokratikoan sakontzea, giza eskubideak hedatuz, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan dagoen aniztasuna elkar ezagutuz eta aitotuz.

Jarraian, lurraldeko udalei eta eskualde mailako tokiko garapen agentzietan zuzendutako dirulaguntzen lerroa aurreikusten da, aniztasunean oinarritutako bizikidetzaren arloko udal proiektuak egin ditzaten, giza eskubideen ikuspegitik; horrela, elkar ezagutzeko espazioak bultzatuko dira eta gaur egun Gipuzkoan dagoen aniztasun guztia ikusaraziko da.

Bestalde, Bizikidetzaren Lantzen foru programarekin jarraitzen da, bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen aldeko udal politikak sustatzeko. Programa horretan parte hartzen duten udalen hausnarketak eta ekarpenak barneratu dira, eta honela, lehentasuna eman nahi zaie bizikidetzaren sustatzeko elkarrizketa esparruei; memoria inklusibo, demokratiko eta ez justifikatzaileari; herritarren kultura politikoko demokratikoa sendotzeari eta, giza eskubideak defendatzea, errespetatzea eta bete daitezen bermatzea xede duten proiektuei.

Azkenik, memoria historikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko beste bi dirulaguntza lerro aurreikusten dira, Gipuzkoako

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DIPUTADO GENERAL

Dirección General de Derechos Humanos
y Cultura Democrática

Convocatoria del año 2022 para la concesión de subvenciones con cargo a los programas gestionados por la Dirección General de Derechos Humanos y Cultura Democrática.

El Consejo de Gobierno Foral, en sesión de 8 de marzo de 2022, ha adoptado el siguiente acuerdo:

La Diputación Foral de Gipuzkoa tiene como uno de sus objetivos estratégicos consolidar la convivencia ciudadana en Gipuzkoa, y para alcanzar este objetivo se plantea como proyecto estratégico desarrollar un programa de cultura política y profundizar en las actitudes, valores y comportamientos democráticos de la ciudadanía.

Así mismo, otro de sus objetivos estratégicos es consolidar y fortalecer la cultura democrática, para lograr una mejor convivencia en la diversidad y una sociedad más justa, siempre en coherencia con la Declaración Internacional de los Derechos Humanos.

En este contexto, la Diputación Foral de Gipuzkoa, a través de la Dirección General de Derechos Humanos y Cultura Democrática, viene efectuando las acciones de fomento que estipula la ley mediante la concesión de subvenciones a las asociaciones, ayuntamientos y agencias comarcales de desarrollo local para el desarrollo de proyectos acordes con dichos fines.

Las ayudas abarcan diferentes objetivos. En primer lugar, se establece la línea de subvenciones destinadas a entidades privadas sin ánimo de lucro para la realización de proyectos de defensa y difusión de los derechos humanos y de la convivencia en la diversidad. Dichas ayudas tienen por objeto profundizar en la cultura democrática de Gipuzkoa mediante la difusión de los derechos humanos así como el mutuo conocimiento y reconocimiento de la diversidad en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

A continuación, se contempla una línea de subvenciones destinadas a ayuntamientos y agencias comarcales de desarrollo local para la realización de proyectos municipales en materia de convivencia en la diversidad desde un enfoque de derechos humanos, favoreciendo así espacios para el mutuo conocimiento y visibilizando toda la diversidad existente hoy en día en Gipuzkoa.

Por otra parte, se continúa con el programa foral Bizikidetzaren Lantzen para promover políticas municipales de paz, convivencia y derechos humanos. En el programa se han integrado las reflexiones y aportaciones de los ayuntamientos participantes en el programa, y se quiere priorizar los ámbitos de diálogo de promoción de la convivencia; la memoria inclusiva, democrática y no justificadora; el fortalecimiento de la cultura política democrática de la ciudadanía, y los proyectos encaminados a la defensa, el respeto y la garantía del cumplimiento de los derechos humanos.

Finalmente, se contemplan otras dos líneas de subvenciones para la realización de proyectos de recuperación de la me-

udalei eta irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuei zuzendutakoak. Laguntza horien helburua da memoria historikoa berreskuratzea, hau da, Gipuzkoan edo lurralde historiko honetako pertsonen gertatutakoak berreskuratzea, egia ezagutzea eta aitortzea.

Erabaki honen bitartez, aipatutako dirulaguntzen 2022ko deialdia onesten da. Dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak 2021eko martxoaren 16ko Diputatuen Kontseiluren erabakiaren bidez onetsitakoak dira, 2021eko apirilaren 6ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, 61 zenbakian, argitaratutakoak.

Dirulaguntza hauek Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan sartuta daude (DPE).

Horrenbestez, Diputatuen Kontseiluak, diputatu nagusiak proposatuta eta eztabaidatu ondoren,

ERABAKITZEN DU

Lehenengo. Onestea Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen dituen programen kontura emango diren dirulaguntzen 2022ko deialdia, dirulaguntza lerro hauek osatzen dutena, eta erabaki honen eranskinean jasotzen dena:

1. Irabazi asmorik gabeko entitate pribatuei zuzendutako dirulaguntzak giza eskubideak eta aniztasuneko bizikidetzaren defendatzeko eta hedatzeko proiektuak egiteko.

2. Gipuzkoako udalei nahiz Gipuzkoako Lurralde Historikoko finkatuta dauden eskualde mailako tokiko garapen agentziei zuzendutako dirulaguntzak, proiektuak gauzatzeko aniztasuneko bizikidetzaren gaietan.

3. Gipuzkoako udalei zuzendutako dirulaguntzak, Bizikidetzaren Lantzen programaren barruan dauden udalerrietan proiektuak gauzatzeko.

4. Gipuzkoako udalei zuzendutako dirulaguntzak, memoria historikoa berreskuratzeako proiektuak gauzatzeko.

5. Irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuei zuzendutako dirulaguntzak, memoria historikoa berreskuratzeako proiektuak gauzatzeko.

Bigarren. Baimentzea bostehun eta laurogei mila (580.000,00) euroko gastua, ondorengo aurrekontu sailen kargura:

moria histórica, destinadas a ayuntamientos de Gipuzkoa y a entidades privadas sin ánimo de lucro. Dichas ayudas tienen por objeto recuperar la memoria histórica, es decir, recuperar, conocer la verdad y reconocer los hechos acaecidos en Gipuzkoa o a personas de este Territorio Histórico.

Mediante el presente acuerdo se aprueba la convocatoria de 2022 de las citadas subvenciones. Las bases reguladoras del otorgamiento de las subvenciones son las aprobadas por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 16 de marzo de 2021, publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 61, de 6 de abril de 2021.

Estas subvenciones están incluidas en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 de la Diputación Foral de Gipuzkoa (PES).

Por consiguiente, a propuesta del diputado general, el Consejo de Gobierno Foral, previa deliberación,

ACUERDA

Primero. Aprobar la convocatoria de 2022 de las subvenciones con cargo a los programas gestionados por la Dirección General de Derechos Humanos y Cultura Democrática, integrada por las siguientes líneas de subvenciones, que se adjunta como anexo al presente acuerdo:

1. Subvenciones destinadas a entidades privadas sin ánimo de lucro para la realización de proyectos de defensa y difusión de los derechos humanos y de la convivencia en la diversidad.

2. Subvenciones destinadas a ayuntamientos guipuzcoanos y a agencias comarcales de desarrollo local radicadas en el Territorio Histórico de Gipuzkoa para la realización de proyectos en materia de convivencia en la diversidad.

3. Subvenciones destinadas a ayuntamientos guipuzcoanos para la realización de proyectos en los municipios dentro del programa Bizikidetzaren Lantzen.

4. Subvenciones destinadas a ayuntamientos guipuzcoanos para la realización de proyectos de recuperación de la memoria histórica.

5. Subvenciones destinadas a entidades privadas sin ánimo de lucro para la realización de proyectos de recuperación de la memoria histórica.

Segundo. Autorizar un gasto por importe de quinientos ochenta mil (580.000,00) euros, con cargo a las siguientes partidas presupuestarias:

Eranskin zk. Anexo n.º	Aurrekontuko kontu saila Partida presupuestaria	Zenbatekoak Importes
I.1. Eranskina Anexo I.1.	1.0140.400.481.00.08.2022	102.000 €
	5.0140.400.481.00.08.2023	48.000 €
	Guztia/Total	150.000 €
I.2. Eranskina Anexo I.2.	1.0140.400.461.01.02.2022	83.000 €
	5.0140.400.461.01.02.2023	42.000 €
	1.0140.400.470.00.02.2022	15.000 €
	5.0140.400.470.00.02.2023	10.000 €
	Guztia/Total	150.000 €
I.3. Eranskina Anexo I.3.	1.0140.400.461.01.08.2022	84.000 €
	5.0140.400.461.01.08.2023	56.000 €
	Guztia/Total	140.000 €
I.4. Eranskina Anexo I.4.	1.0140.400.461.01.07.2022	56.000 €
	5.0140.400.461.01.07.2023	24.000 €
	Guztia/Total	80.000 €
I.5. Eranskina Anexo I.5.	1.0140.400.481.00.09.2022	36.000 €
	5.0140.400.481.00.09.2023	24.000 €
	Guztia/Total	60.000 €
	Guztia/Total	580.000 €

Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, dirulaguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

Erabaki hau behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete administrazioarekiko auzietako Donostiako epaitegietan, erabakia argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsua aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

Donostia, 2022ko martxoaren 11.—Juan José de Pedro Alonso, Diputatu Nagusiaren Alorreko idazkaria. (1496)

ERANSKINA

Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritza Nagusiak kudeatutako programen kargura dirulaguntzak emateko 2022ko deialdia.

1. Oinarri arautzaileak.

Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen dituen programen kontura emango diren dirulaguntzen oinarri arautzaileak 2021eko martxoaren 16ko Diputatuen Kontseiluren erabakiaren bidez onetsitakoak dira, 2021eko apirilaren 6ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, 61 zenbakian, argitaratutakoak.

2. Finantzazioa.

2.1. Deialdi honen gehienezko zenbatekoa 580.000 eurokoa izango da, aurrekontuko kontu sail hauen kargura:

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado o disminuido, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 11 de marzo de 2022.—El secretario del Área del Diputado General, Juan José de Pedro Alonso. (1496)

ANEXO

Convocatoria de 2022 de las subvenciones con cargo a los programas gestionados por la Dirección General de Derechos Humanos y Cultura Democrática.

1. Bases reguladoras.

Las bases reguladoras del otorgamiento de las subvenciones con cargo a los programas gestionados por la Dirección General de Derechos Humanos y Cultura Democrática son las aprobadas por acuerdo de Consejo de Gobierno Foral de 16 de marzo de 2021, publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 61, de 6 de abril de 2021.

2. Financiación.

2.1. La cuantía máxima para la presente convocatoria será de 580.000 euros con cargo a las siguientes partidas presupuestarias:

Eranskin zk. Anexo n.º	Aurrekontuko kontu saila Partida presupuestaria	Zenbatekoak Importes
I.1. Eranskina Anexo I.1.	1.0140.400.481.00.08.2022	102.000 €
	5.0140.400.481.00.08.2023	48.000 €
	Guztia/Total	150.000 €
I.2. Eranskina Anexo I.2.	1.0140.400.461.01.02.2022	83.000 €
	5.0140.400.461.01.02.2023	42.000 €
	1.0140.400.470.00.02.2022	15.000 €
	5.0140.400.470.00.02.2023	10.000 €
	Guztia/Total	150.000 €
I.3. Eranskina Anexo I.3.	1.0140.400.461.01.08.2022	84.000 €
	5.0140.400.461.01.08.2023	56.000 €
	Guztia/Total	140.000 €
I.4. Eranskina Anexo I.4.	1.0140.400.461.01.07.2022	56.000 €
	5.0140.400.461.01.07.2023	24.000 €
	Guztia/Total	80.000 €
I.5. Eranskina Anexo I.5.	1.0140.400.481.00.09.2022	36.000 €
	5.0140.400.481.00.09.2023	24.000 €
	Guztia/Total	60.000 €
	Guztia / Total	580.000 €

2.2. Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta

2.2. El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado o disminuido, con carácter previo a la resolución de las soli-

duen organoak, dirulaguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

3. Gehienezko eskaera kopurua.

Erakunde eskatzaile bakoitzak, gehienez, proiektu bat aurkeztu ahalko du.

4. Eskaerak aurkezteko epea.

2022an laguntza hauen eskaerak aurkezteko epea deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eta 15 egun balioduneko epean amaituko da.

5. Jarduketak gauzatzeko eta egiaztatzeko epea.

Eskaeraren xede diren esku-hartzeak 2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra bitartean egikaritu beharko dira, eta horien guztizko egikaritzea justifikatzeko kontua 2023ko martxoaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da.

6. Eskaerarekin batera aurkeztu behar den dokumentazioa.

6.1. Dirulaguntzen eskaerak eranskin gisa doan eskaera ereduaren arabera aurkeztuko dira. Eredu hori eskuragarri dago Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa, deialdi honi dagokion atalean (<https://egoitza.gipuzkoa.eus>).

6.2. Eskaera ereduarekin batera, edozein kasutan, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Proiektuaren galdetegi orokorrean eskatutako informazioa. Galdetegia goian aipatutako atarian eskura daiteke.

b) Aurrekontua, partidetan banakatuta, proiektu horrek berekin dakarren egikaritzearen kostuarena, hura finantzatzeko gainerako bitartekoak adierazita.

6.3. Erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu beharko da (aplikazio informatikoaren bitartez egin ahal izango da), ondorengo puntu hauek jasoz:

a) 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 12. artikuluan eta 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koak, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoak, 26. artikuluan ezartzen dituzten onuradun izateko debeku arrazoietatik salbu dagoela; eta zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean dagoela.

Dirulaguntzak eskuratzeraz udalerrri ezberdinak elkarrekin aurkeztuz gero, elkarrekin doazen udal bakoitzaren adierazpena gaineratu beharko da, izan ere, ezingo dute onuradun izaera erdietsi haietako batek ezin badu hala egin martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz.

b) Proiektu bererako eskatutako edo/eta lortutako beste laguntzen aitortza.

Zerga betebeharren eta Gizarte Segurantzakoetan inguruan adierazpen horretako datuen egiaztapena egin ahal izateko, entitate eskatzaileek adierazpenean bertan berariaz baimena eman dezakete, ziurtagiriak egin behar dituzten erakundeek ziurtagirietan agertu beharreko datuak Diputatu Nagusiaren Alorrari zuzenean lagatzeko.

6.4. Gainera, irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuen kasuan, era berean, dokumentazio hau helaraziko da:

a) Erakundearen estatutuen eta fundazio aktaren kopia, eta dagokion erregistroan altan emanda egotearen ziurtagiria. Erakunde horien helburu edo jardueren artean deialdiaren xede direnekin bat datozenak egon beharko dira.

citades presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria.

3. Número máximo de solicitudes.

Cada entidad solicitante podrá presentar como máximo un proyecto.

4. Plazo de presentación de solicitudes.

En el año 2022, el plazo de presentación de las solicitudes de estas ayudas se iniciará el día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, y finalizará en el plazo de 15 días hábiles.

5. Plazo de ejecución y justificación de la actuación.

Las actuaciones objeto de solicitud deberán ejecutarse entre el 1 de enero de 2022 y el 31 de diciembre de 2022, debiendo presentarse la cuenta justificativa de la ejecución total de las mismas con anterioridad al 31 de marzo de 2023.

6. Documentación a presentar con la solicitud.

6.1. Las solicitudes de subvención se presentarán conforme al modelo de solicitud que se adjunta como anexo y que se encuentra a disposición en el apartado de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, <https://egoitza.gipuzkoa.eus>, correspondiente a la presente convocatoria.

6.2. Al modelo de solicitud se acompañará, en todo caso, la siguiente documentación:

a) Información solicitada en el cuestionario general del proyecto que se proporciona en el referido portal.

b) Presupuesto, desglosado por partidas, del coste que la ejecución de tal proyecto conlleve, haciendo constar los demás medios de financiación del mismo.

6.3. También se acompañará una declaración responsable, que podrá hacerse a través de la aplicación informática, sobre los siguientes extremos:

a) De no concurrir en la entidad solicitante ninguna causa impeditiva de la condición de beneficiaria de las indicadas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y en el artículo 26 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres, así como de encontrarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

En caso de que se acojan a las subvenciones agrupaciones de municipios, deberán acompañar tantas declaraciones como ayuntamientos formen parte de la agrupación, dado que ésta no podrá acceder a la condición de beneficiaria si no lo puede hacer alguno de sus integrantes por aplicación de lo previsto en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo.

b) De otras subvenciones solicitadas y/o obtenidas para el mismo proyecto.

A efectos de la posterior comprobación de los datos de dicha declaración relativos a las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social, las entidades solicitantes podrán manifestar en la misma su consentimiento expreso para que las entidades que deben expedir los certificados correspondientes cedan los datos que deban figurar en ellos directamente al Área del Diputado General.

6.4. Además, en el caso de entidades privadas sin ánimo de lucro, se aportará así mismo la siguiente documentación:

a) Copia de los estatutos y del acto fundacional de la entidad, y certificación de estar dada de alta en el registro correspondiente. Dichas entidades deberán tener entre sus objetivos o actividades las que sean acordes con el objetivo de la convocatoria.

b) Bazkideen Liburuaren fotokopia, haien kopurua egiaztatzeke, edo halakorik izan ezean, Elkarteko Idazkaritzako titularraren pertsonaren ziurtagiria, egun dauden bazkide kopurua eta aurreko bi urtetako abenduaren 31n zeudenen kopurua ziurtatuz.

c) Erakunde eskatzailearen legezko ordezkari den pertsona fisikoaren NAN agiriaren fotokopia.

6.5. Bestalde, Lurralde Historikoko udalen kasuan, era berean, dokumentazio hau helaraziko da:

a) Eskumeneko udal organoak hartutako akordioaren ziurtagiria, dagokion laguntza eskaera erabakitzeke, eskatutako zenbatekoa eta esku-hartzearen kostu osoarekiko zenbateko horrek suposatzen duen portzentajea adierazita.

b) Erakundeko idazkariaren ziurtagiria, gutxienez proiektua burutzeko gastuaren aurrekontu osoaren zenbatekoaren % 20ko berezko ekarpenaren edo elkarren arteko finantzaketa justifikatzekeoa.

Elkarrekin aurkezten diren udalen kasuan, udal bakoitzak ziurtagiri bat helarazi beharko du.

c) Proiektuan aholkatu edo hura garatzeko laguntza tekniko bat kanpotik kontratatuz gero, laguntza emango duen pertsona fisiko edo juridikoaren esperientzia edota prestakuntza zehaztu beharko da.

6.6. Azkenik, eskualde mailako tokiko garapen agentzia baten aurkeztutako proiektu baten kasuan, parte hartzen duten udalek proiektuaren gaineko baimena eta beren lankidetzaren berriazko adierazpena gaineratu beharko dute.

7. Dirulaguntzak emateko ebazpenaren argitalpena.

Deialdiaren ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, 45.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta, argitalpen egunaren biharamunetik hasita, jakinarazpena egintzat joko da lege-ondorio guztietarako.

b) Fotocopia del Libro de Socios/as, para acreditar su número, o en su defecto certificado oficial de la persona titular de la Secretaría de la Asociación certificando el número de socios/as actuales y a 31 de diciembre de los dos años inmediatamente anteriores.

c) Fotocopia del DNI de la persona física representante legal de la entidad solicitante.

6.5. Por otra parte, en el caso de los ayuntamientos del Territorio Histórico, se aportará así mismo la siguiente documentación:

a) Certificación del acuerdo adoptado por el órgano municipal competente, por el que se resuelve solicitar la ayuda correspondiente, con indicación de la cuantía solicitada y del porcentaje que representa respecto del coste total de la actuación.

b) Certificado del secretario o secretaria de la entidad, justificativo de la aportación propia o cofinanciación en un 20 %, como mínimo, del importe total del presupuesto del gasto para la realización del proyecto.

En el caso de los ayuntamientos que concurren conjuntamente en agrupación, deberá aportarse un certificado por cada ayuntamiento.

c) En el caso de contratación externa de una asistencia técnica para el asesoramiento o desarrollo del proyecto, habrá de especificarse la experiencia y/o formación de la persona física o jurídica que realizará la asistencia.

6.6. Finalmente, en el caso de un proyecto presentado por una agencia comarcal de desarrollo local, los ayuntamientos participantes deberán declarar expresamente su consentimiento y colaboración con el proyecto.

7. Publicación de la resolución de concesión.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, la resolución de la convocatoria será objeto de publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa

ESKAERA | SOLICITUD

Espedientea **Data** **Sarrera kodea**
Expediente **Fecha** **Código acceso**

ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS DEL SOLICITANTE

Eskatzailearen izena Nombre del solicitante		Sexua Sexo	
IFZ NIF		Posta Kodea Código Postal	
Helbidea Dirección		Ataria/Solairua Portal/Piso	
Herria Localidad		Lurralde Historikoa Territorio Histórico	
Helbide elektronikoa Correo electrónico		Telefonoak Teléfonos	
Kontua Cta Cte.		Faxa Fax	

HARREMANETAKO PERTSONAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA DE CONTACTO

Pertsonaren izena Nombre de la persona		Sexua Sexo	
IFZ NIF		Posta Kodea Código Postal	
Helbidea Dirección		Lurralde Historikoa Territorio Histórico	
Herria Localidad		Telefonoak Teléfonos	
Helbide elektronikoa Correo electrónico		Faxa Fax	

Onuradun izatearen aitortpena / Declaración de condición de persona beneficiaria

Aitortzen dut ez ni ezta nik ordezkatzan dudan entitatea ere ez gaudela sartuta martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 12. artikuluan aurreikusten dituen onuradun izaera lortzea eragozten duten egoeratan. Aldi berean, entitatea ez dago otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak aurreikusten dituzten onuradun izateko debeku egoeraren batean.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere eskumenak egikaritzuz, beharrezko egiaztapenak egingo ditu, zerga betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzarenak beteak dituela ziurtatzeko.



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Diputación Foral
de Gipuzkoa

Declaro que no concurren en mí ni en la entidad a la que represento ninguna de las circunstancias que impiden obtener la condición de persona o entidad beneficiaria, previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Asimismo, tampoco se encuentra sometida a ninguno de los supuestos de prohibición para ser beneficiaria de subvenciones previstos en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

La Diputación Foral de Gipuzkoa efectuará en el ejercicio de sus competencias las verificaciones necesarias para comprobar el cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

Datu pertsonalen tratamendua / Tratamiento de datos personales

Datu pertsonalen tratamenduak xede izango du dirulaguntzak eman, kudeatu eta haien jarraipena egiteko prozedurak izapidetzea, hala agintzen baitute 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak eta 4/2019 Foru Arauak, martxoaren 11koak, Gobernu Onari buruzkoa, foru gobernantza publikoaren esparruan. Xede horren oinarri dira deialdiaren interes publikoa eta bertan parte hartzeko eskaera.

Datuak gordeko dira dirulaguntza emateko prozedura eta aurkez daitezkeen erreklamazioak izapidetzeak irauten duen bitartean.

Tratamenduen arduradun izango da deialdia kudeatzen duen zuzendaritza nagusia, eta haren aurrean erabili ahal izango dituzu datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta haien aurka egiteko eskubideak, hari zuzendutako idatzi bidez. Datu pertsonalen tratamenduari eta eskubideen erabilerari dagokienez, harremanetan ere jar zaitezke helbide honetan: dbo@gipuzkoa.eus.

Los datos de carácter personal serán objeto de tratamiento con la finalidad de tramitar los procedimientos de concesión, gestión y seguimiento de las subvenciones, en cumplimiento de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y de la Norma Foral 4/2019, de 11 de marzo, de Buen Gobierno en el marco de la gobernanza pública foral. Finalidad basada en el interés público de la convocatoria y en su solicitud de participación en ella.

Los datos serán conservados durante la tramitación del procedimiento de concesión de la subvención y de las reclamaciones que se puedan formular.

El responsable del tratamiento será la dirección general gestora de la convocatoria, ante la cual podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, supresión, limitación y oposición, enviando un escrito dirigido al mismo. Por lo que respecta a las cuestiones relativas al tratamiento de sus datos personales y al ejercicio de sus derechos puede también ponerse en contacto en esta dirección: dbo@gipuzkoa.eus.

Komunikazio onartzea / Aceptación de comunicaciones

Onartzen dut eskaerari buruzko komunikazioetarako posta elektronikoa lehenestea. Nire gain hartzen dut eman dizuedan helbide elektronikoaren funtzionamendu egokia ziurtatzeko ardura.

Acepto que las comunicaciones sobre la solicitud se hagan preferentemente por correo electrónico. Me responsabilizo del correctofuncionamiento de la dirección aportada.

-



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Diputación Foral
de Gipuzkoa

**PROIEKTU HONEK ESKATUTAKO/JASOTAKO BESTELAKO
LAGUNTZAK OTRAS AYUDAS SOLICITADAS/CONCEDIDAS POR
EL MISMO PROYECTO**

	Ditu Tiene
--	---------------

	Ez ditu No
--	---------------

Entitate eskatzaileak honako dirulaguntzak jaso edota eskatu ditu, gaur arte, proiektu hori bera laguntzeko. Era berean, entitate horrek konpromisoa hartzen du herri erakunde publikoetan nahiz pribatuetan, gaurtik hasi eta proiektua amaitu bitartean, aurkezten duen dirulaguntza eskaera ororen berri emateko.

La entidad solicitante, hasta ahora, además de la presente solicitud de ayudas, ha presentado y/o recibido las siguientes ayudas por el mismo proyecto. La entidad deberá comunicar cuantas solicitudes de ayuda presente en cualquier organismo público o privado a partir de la fecha de hoy hasta finalizar el proyecto.

Erakundea Organismo	Deialdia Convocatoria	Onartze data Fecha de aprobación	Zenbatekoa Importe	Onartutako dirulaguntza Subvención concedida
GUZTIRA/ TOTAL				

PROIEKTUA / PROYECTO

Izena Denominación
Proiektuaren azalpena Descripción proyecto

OHARRAK / OBSERVACIONES

--



____, 20 _____ ko _____ (a)ren _____ (a)

En a _____ de _____ de 20__

Dokumentu hau sinatzen duenak bere gain hartzen du bertan adierazitakoaren erantzukizuna eta, orobat, dokumentuen zerrendako artxiboetan jasotako informazioarena (artxiboek CSV eta HASH kodeak dituzte).	La persona firmante se responsabiliza de lo declarado en el presente documento así como de la información contenida en los archivos relacionados en la lista de documentos identificados con sus respectivos CSV y códigos HASH.
EKS kodea (Egiaptapeneko Kode Ziurra) da Gipuzkoako Foru Aldundiko Egoitza Elektronikoa zaindutako artxibo bat identifikatzen duena, eta haren egiazkotasuna web orrialde honetan kontsultatzea ahalbidetzen duena: https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/csv	El CSV (Código Seguro de Verificación) es el código que identifica un archivo custodiado en la Sede Electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y permite consultar su autenticidad en la siguiente dirección web: https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/csv
HASH kodeak argi eta garbi identifikatzen du artxiboa, eta bermatzen du hura ez dela aldatu zaintzapean egon den bitartean.	El código HASH identifica inequívocamente el archivo, y garantiza que éste no ha sido alterado durante su custodia.



PROIEKTUARI BURUZKO GALDEGAI OROKORRA | CUESTIONARIO GENERAL DEL PROYECTO
I.1. eta I.2. ERANSKINAK | ANEXOS I.1. y I.2.

PROIEKTUA / PROYECTO
<p>Eskatzailea / <i>Solicitante</i>:</p> <p>IFK / <i>CIF</i>: PK / <i>CP</i>: Helbidea / <i>Domicilio</i>: Harremanetarako pertsona / <i>Persona de contacto</i>: Telefonoa / <i>Teléfono</i>: Helbide elektronikoa / <i>Correo electrónico</i>: Kontu korrontea / <i>Cuenta corriente</i> (IBAN) ES</p>
PROIEKTUAREN IZENA / <i>DENOMINACIÓN DEL PROYECTO</i> :
1.- Proiektuaren helburuak / <i>Objetivos del proyecto</i>
2.- Aurreikusitako jarduerak eta nork gauzatuko ditu / <i>Actividades previstas y quién las realizará</i>
3.- Metodologia / <i>Metodología</i>
4.- Ebaluazio-adierazleak / <i>Indicadores de evaluación</i>
5.- Egutegia / <i>Calendario</i>
6.- Alderdi berritzaileak / <i>Aspectos innovadores</i>
7.- Herritarrek eta gazteek parte hartzeko bitartekoak / <i>Mecanismos de participación ciudadana y de la juventud</i>
8.- Genero ikuspegia / <i>Perspectiva de género</i>
9.- Hizkuntza ofizialen erabileraren plangintza / <i>Planteamiento del uso de las lenguas oficiales</i>
10.- Proiektua ondo baloratzeko beharrezkotzat jotzen diren beste informazio batzuk / <i>Otras informaciones que se consideran necesarias para valorar adecuadamente el proyecto</i>

I.3. ERANSKINA | ANEXO I.3.

PROIEKTUA / PROYECTO
<p>Udal eskatzailea / <i>Ayuntamiento solicitante</i>:</p> <p><u>Harremanetarako pertsona / <i>Persona de contacto</i></u> Izen-abizenak / <i>Nombre y apellidos</i>: Telefonoa / <i>Teléfono</i>: Helbide elektronikoa / <i>Correo electrónico</i>:</p>
PROIEKTUAREN IZENA / <i>DENOMINACIÓN DEL PROYECTO</i> :
1.- Proiektuaren helburuak / <i>Objetivos del proyecto</i>
2.- Aurreikusitako jarduerak / <i>Actividades previstas</i>
3.- Metodologia / <i>Metodología</i>
4.- Egutegia / <i>Calendario</i>



<p>Bizikidetzaren sustatzeko elkarrizketa esparruak (1.3.1 a eta b oinarria ikusi) <i>Ámbitos de diálogo para impulsar la convivencia (ver base 1.3.1 a y b)</i></p>
<p>5.- Udal ordezkariak duten sentsibiltate politiko guztiei zuzendutako neurriak (derrigorrezkoa) / <i>Medidas dirigidas a las diferentes sensibilidades políticas con representación municipal (obligatorio)</i></p>
<p>6.- Herritarrek parte hartzeko bitartekoak (herritar foroak) / <i>Mecanismos de participación ciudadana (foros ciudadanos)</i></p>
<p>7.- Bizikidetzaren sustatzeko elkarrizketa esparruak dinamizatu eta laguntzeko kontratatuta entitatea / <i>Entidad contratada para dinamizar y acompañar los ámbitos de diálogo para impulsar la convivencia</i></p>
<p>Bizikidetzaren lantzeko sustapen eremuak (1.3.2 a, b, c, d oinarria ikusi) <i>Ámbitos de trabajo para la promoción de la convivencia (ver base 1.3.2 a, b, c, d)</i></p>
<p>8.- Lantzeko eremuak / <i>Ámbitos a los que hace referencia</i></p>
<p>9.- Genero ikuspegia / <i>Perspectiva de género</i></p>
<p>10.- Hizkuntza ofizialen erabilieraren plangintza / <i>Planteamiento del uso de las lenguas oficiales</i></p>
<p>11.- Ebaluazio-adierazleak / <i>Indicadores de evaluación</i></p>
<p>12.- Alderdi berritzaileak / <i>Aspectos innovadores</i></p>
<p>13.- Proiektua baloratzeko beharrezkoak diren beste informazio batzuk / <i>Otras informaciones necesarias para valorar el proyecto</i></p>

1.4. eta 1.5. ERANSKINAK | ANEXOS 1.4. y 1.5.

<p>PROIEKTUA / PROYECTO</p>
<p>Eskatzailea / <i>Solicitante:</i> IFK / <i>CIF:</i> Harremanetarako pertsona / <i>Persona de contacto:</i></p>
<p>PROIEKTUAREN IZENA / <i>DENOMINACIÓN DEL PROYECTO:</i></p>
<p>1.- Proiektuaren helburuen justifikazio laburra / <i>Breve justificación de los objetivos del proyecto</i></p>
<p>2.- Erabiliko den metodologia / <i>Metodología a emplear</i></p>
<p>3.- Proiektuaren bideragarritasuna / <i>Viabilidad del proyecto</i></p>
<p>4.- Jarduketara mota desberdinak / <i>Diferentes tipos de actuaciones</i></p>
<p>5.- Proiektua egiten duen pertsona fisiko edo juridikoaren esperientzia eta formakuntza / <i>Experiencia y formación de la persona física o jurídica que realiza el proyecto</i></p>
<p>6.- Lan prozesuaren kronograma / <i>Cronograma del proceso de trabajo</i></p>
<p>7.- Herritarrekiko harremanak: hartzaileak, herritarren partaidetzarako mekanismoak, zabalkunde gaitasuna eta herritarrengan eragina izateko aukera / <i>Relación con la ciudadanía: personas destinatarias, mecanismos de participación ciudadana, capacidad divulgativa y su posibilidad de incidencia en la ciudadanía</i></p>
<p>8.- Nazioarteko jarraibideekin duen koherentzia / <i>Coherencia con las directrices internacionales</i></p>



9.- Genero ikuspegia / <i>Perspectiva de género</i>
10.- Hizkuntza ofizialen erabileraren plangintza / <i>Planteamiento del uso de las lenguas oficiales</i>
11.- Alderdi berritzaileak / <i>Aspectos innovadores</i>
12.- Ebaluazio adierazleak / <i>Indicadores de evaluación</i>
13.- Proiektua baloratzeko beharrezkoa den beste informazio / <i>Otra información necesaria para valorar el proyecto</i>

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPEN EREDUA | *MODELO DECLARACIÓN RESPONSABLE*

UDALEK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPEN EREDUA, HAINBAT UDAL ELKARREKIN BAT EGINDA AURKEZTEN BADIRA

..... jaunak / andereak,
.....
Udaleko gisa
(kargua jarri)

MODELO DE DECLARACIÓN RESPONSABLE A PRESENTAR POR AYUNTAMIENTOS QUE FORMEN PARTE DE UNA AGRUPACIÓN

D/D^a....., en
calidad de (indicar
cargo)..... y en
representación del Ayuntamiento de
.....

AITORTZEN DU

ez ni ezta nik ordezkaten dudan entitatea ere ez gaudela sartuta onuradun izateko arau hauetan aurreikusitako debekuetan eta gaitasungabetzen duten zirkunstantzietan: 3/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoa -12. artikulua-; 2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoa -26.3 artikulua-; eta, indarrean dagoen gainerako araudia.

Aitortzen du, baita ere, egunean dagoela lege xedapenek ezarritako zerga gaietako eta Gizarte Segurantzako betebeharretan.

Lekua eta data / lugar y fecha

DECLARA:

que no concurren en mí ni en la entidad a la que represento ninguna de las incompatibilidades, prohibiciones y circunstancias inhabilitadoras de la condición de beneficiario previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de Subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en el artículo 26.3 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres, y en el resto de la normativa vigente.

Asimismo, declara hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes.